

ama bezalakoa, lehen alaba, erantzukizunez betea, nire bigarren ama, aholku zein ideia zoragarriak ematen zizkizuna, janzkera imitagarrikoa. Ama, beti gogoratuko dut.

UCIn gertatutako une gupidagabe eta ez bidezko hura, han telefonotik eskegita, bakardadean.

Orain dela urte bete eskas gertatu zen baina niretzako eta gu seientzako, badirudi atzo izan zela, ama. Hain berezia zinen, jende guztiaren gustukoa. Gogoratzen duzu a ze nolako barreak 1995eko Gabon Zaharrean? Denok mozorrotu ginen, txinoetan erositako apaingarri horterekin eta justu, 12 kanpaien ostean nire nebak xanpaina hartu eta ireki baino lehen gora, behera eta aldeetara zorabiatu zuen botila eta pum! kortxoa zist atera eta alkohol guztia sabaira hedatu zen. Ia ia Aner zamatik hartu eta ito egiten duzu, jese. Baina ez pentsa ama, gaur egun mutil adoragarria da, lobak izugarri maitatzen dituen, maitabera alegia. Ba ama, harira bueltatuko naiz eta Gabon Zahar hartan, 17 urterekin, nire senarra izango zena sakonago ezagutu nuen. Goizeko hamarretan etxera heldu orduko, han zeundeten zuek, egongelako sofa loredun itsusian bi ahizpa eta zu, nire zain, errieta botatzeko baina benetan jakin nahi zenutena zen, nola konpondu nintzen igerilekuko mutil sexi horrekin, eta nire irribarre pikaroak salatu ninduen. Marmartiak!

Oroimenean ere badut zelan nire nebak maitasun istorio eta sekretuak zuri kontatzen zizkizuen eta gero berehala, gugana, neskengana esamesaka zentozela eta "ixo, ez esan gero" eskatzen zenigula. Zein okerra zinen, ume bat lez!

Inoiz ez dut Jon ikusi hain goibel urtarrilaren 14ko egun hartan bezalaxe, negar batean. Nire senarrak, gustuko zuen Alikantera joatea nahiz eta amaginarrebaren oporretako etxea izan, zeren eta zu guztiz independente baitzinen eta gu libre izaten uzten gintuzun. Hori bai, bazkari zein afari guztietara apuntatzeko prest zeunden beti. Baina benetan liluratzen zintuena gosaria zen, gosari koipetsua txurroz zein porraz hornitua. Zein ezaguna zinen Santa Polako txurrerian!!!

A ze nolako pena ez duzula Bernat ezagutu, ikutu, usaindu, gozatu; zure zortzigarren iloba!!! Ama, hain polita da! Aititeren antza omen duela diote. Zuk zer diozu? Nigaz dezepzionatuta zaudela badakit, hainbeste ume izateagatik baina azkenean noren antza izaten dugu ba? Ba, gure gurasoena, guk gura,